

Galindok uko egin dio 'Oñaederra kasuan' Garzon epailearen aurrean deklaratzeari

Epaileak ez zuen inputatutako jeneralaren aurkako neurririk ezarri

Garzon epaileak Galindo inputatu gisa deklaratzera deitu zuen 'Oñaederra kasuan'. Jeneralak, ordea, uko egin zion Garzonek egindako galderi erantzuteari, eta errugabea dela baino ez zuen esan. Garzonek azkenean ez zuen Galindoren aurkako behin-behineko neurririk hartu.

Efe / Madril

GOIZEKO 10:15etarako Enrique Rodríguez Galindo jenerala Entzutegi Nazionalan zegoen Baltasar Garzon epailearen aurrean deklaratzeko, izan ere, epaileak inputatu gisa deitu zuen deklaratzera Oñaederra kasua-n ikeritzen ari diren atentatuekin zerikusia izan dezakeelako. Jorge Argote abokatuak esan zuenaren arabera, Galindok uko egin zion deklaratzeari, eta egotzen zaizkion delituak ez zituela berak egin esan zuen. Galindok adierazi zuen ez dituela ulertzen bere aurkako salaketak eta, sumarioa sekretua denez, prentsaren bidez baino ez dituela ezagutzen. Galindo CESI-Den agiriaren inguruan ere mintzatu zen. Honek Garzoni esan zionez, agiri horiek sekretuan gorde-tzeak kalte egin dio, hauek iker-tuko balira argi geratuko litzate-keelako faltsuak direla eta baita zeinek manipulatu zituen ere.

Galindok Garzonen galderei



Galindo, «Oñaederra kasuan» inputatua dagoela dioen autoa jasotzera joan zen egunean.

EFE

erantzuteari uko egin bazion ere, 180 galdera horiek sumarioan sartzea erabaki zuen epaileak. Argote abokatuak gogor kritikatu zuen neurri hori, akusatu guztiek isilik egoteko duten eskubidea bortxatzen omen duelako.

Galindorekin izan ostean, aldeek jeneralaren aurkako neurrien inguruan duten iritzia emateko bilera egin behar den galdegin zion epaileak fiskalari, baina Entzutegi Nazionalako fiskal nagusi Jose Arandak esan zuen ez dela beharrezkoa eta, beraz, Gar-

zonek ez zuen bilerara deitu. Azkenik, Garzonek, ez zuen jeneralaren aurka behin-behineko neurrik ezartzea erabaki, eta fiskalak ere ez zuen horrelako neurririk eskatu.

Gogoratu behar da Garzonek maiatzaren 7an erabaki zuela Galindo inputatu gisa deitzea, eta berarekin batera Guardia Zibileko zuzendari nagusi izandako Jose Antonio Saenz de Santamaria eta Guardia Zibileko Estatu Nagusiko zuzendari Andres Casinello auzipetzea erabaki zuen. Garai hartan

Entzutegi Nazionalako iturriek jakinarazi zuten, Garzonen autoan ez zaizkie delitu zehatzak leporatzen, baina Oñaederra kasua-n aztertzen ari diren gertaeretan (hilketa, talde armatuko kide edo laguntzaile izatea, armak eta lehergailuak izatea, agiriak faltsutzea eta ustezko izenak erabiltzea), baliteke zerikusia izatea. Orain arte hiru jeneralen aurkako salaketak egin dituzte hainbat lekukok, eta epailearen aburuz, «sinesgarriak diren aztarnak» daude hirurak auzipetzeko. X

Barriionuevok ez du onartu Manzanares GALEko sumario nagusiko epaile gisa

■ Bere aurkako areriotasuna agerian utzi duela dio Barriionuevok

Efe / Madril

JOSE BARRIONUEVO Barne ministro ohiak ez du Jose Luis Manzanares CGPJko (Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia) presidenteorde ohi GALEko sumario nagusiko epaile gisa onartu, bere kontrako areriotasuna agerian utzi duelako Barriionuevoren ustez.

Barriionuevo Auzitegi Gorena aztertzen ari den GALEko sumario nagusian auzipertatua dago, hain zuzen ere Segundo Mareyren bahiketa aztertzen duen sumarioan. CGPJ utzi ondoren, Manzanaresek Auzitegi Goreneko Penaleko bigarren salako kargua hartu du. Sala horretako plenoak Justizia sala gisa funtzionatzen du.

Barriionuevoren defentsa iturrien arabera, ministro ohiak ezezkoaren arrazoiak Manzanaresek harengana duen areriotasuna aipatu du. Areriotasun hau, jendaurrean eginiko hainbat adierazpenetan agerian utzi duela dio Barriionuevok. Zehazki iturriek gogora, ekarri zituzten CGPJko presidenteorde ohiaren adierazpen batzuk. Manzanaresek deklarazio haietan esan zuenez, nahiz eta Barriionuevoren aurkako sententziak ez kondenatu, horrek ez luke haren errugabetasuna ziurtatuko. X

Yoyesen omenezko ekitaldia Ordizian, hilketaren hamargarren urteurrenean

■ «Basakeriak gure artean dirauela gogorarazi nahi dugu», dio bere aldeko batzordeak

P. A. / Ordizia

HAMAR urte betetzen dira gaur ETak Maria Dolores Gonzalez Katarain Yoyes militante ohi hil zuela. Hori dela eta, Yoyesen Aldeko Herri Batzordeak zenbait ekitaldi antolatu ditu Ordizian (Gipuzkoa), «baina ez hildakoak mitifikatu nahian, baizik eta indarkeriaren mundutik atera nahi zuen emakume baten hilketak gogoraz diezagun basakeriak gure artean jarraitzen duela. Isidro Usabiagaren hilketa gogoratu besterik ez daukagu».

Aipatu batzordeak manifestu bat eta Yoyes, 1986-1996 liburua aurkeztu zituen atzo Ordizian. Gainera, bihar egingo den kontzentrazioan parte hartzeko deia egin zuten. Gonzalez Katarain hil zuten lekuan, Joxemiel Barandiaran plazan, egingo da arratsaldeko zortzietan. Yoyes omentzeaz gain —Imanol kantariak hainbat bertso abestuko ditu orain ha-

mar urte egin zuen bezala—, indarkeria gaitzestea ere helburu du deialdiak.

«Euskal Jaietako asteazken hura gogoratu behar dugu; askok uste genuen baino gogoeta sakonago baten ondorioz bortizkeriaren aurrean intsumiso izaten saiatu zen emakume haren gizatasuna gogoratu nahi dugu. Baina horrekin batera, gure herrian bortizkeria jasan duten gizon-emakume guztiak ere ez ditugu ahaztu», dio agiriak.

Batzordekoen ustez, azken hamar urte hauetan gizartearen erantzuna geroz eta handiagoa izan da. «Eta bide horretatik jarraitu behar dugu, nahiz eta askotan elkarriketarako girorik ez izan, itxita dagoen gure gizarteko zati hori irekitzeko balio dezan nahi baitkenuke».

1986an Yoyesen omenezko batzordea osatu zutenek antolatu dituzte egunotako ekitaldiak. Kepa Kortak, orduan Ordiziako alkate zenak adierazi

zuenez, jende gehiagok bat egin du orain lan horretan, horien artean Ordiziako Bakearen Aldeko Koordinakundeak eta Udaleko gobernu batzordeak. Yoyesen senide batzuk ere izan ziren atzoko prentsaurrekoan, eta bere omenez argitara eman den liburuaren berri —aurrekoaren egokitzapena da— eman zuen Loli Gonzalez ahiz-pak.

Yoyes hilez, «adostasun eza-ren eskubideari tiro» egin ziotela esan zuen. «Ez dugu Yoyes ahazten, ez dugu ahaztu nahi, bere zuziak bizirik iraun dezan nahi dugu. Nor izan zen erakutsi nahi diegu belaunaldi berriei, horregatik jaso ditugu liburuan bere diarioko pasarteak, duela hamar urteko omenaldian esanak, eta azken hamar urte haur buruzko gogoetak egiten dituzten kolaborazioak», azaldu zuen. Hurrengo hilabeteetan mahainguruak antolatzeko asmoa ere azaldu zuten batzordekoek. X

Piratak

Egunkaria
RON. RON. RON.
JOLASTU
TA HOR KONPON

HONDARRIBIA
Irailaren 10ean
Arma Plazan
17:00etan

UNTZI PIRATA honen altxor txikia:
Antzerkia, Jokoak, Magia Saiokak, Musika....
Jai edo ospakizunetarako
Deitu © honetara (943) 300222 - EGUNKARIA